

Ordizian, 2014ko irailaren 25ean UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

ETORRI EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
----------------------------------	------------

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.



BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2014ko uztailaren 23ko Plenoko akta onartu.
- 2.- Alkateen aukeraketa zuzenerako proposamenaren aurrean BILDU taldek aurkeztutako mozioa.
- 3.- PSE-EE(PSOE)k aurkeztutako mozioa Espainiako gobernuak LOREG legea aldatzeko proposamenaren aurrean.(Alkateen aukeraketa zuzenerako proposamena)
- 4.- ESKOZIAR HERRIARI AGURRIK BEROENA izenburua duen BILDU taldek aurkeztutako proposamena.
- 5.- Kutxa bank-fundazio batean ez bihurtzeko BILDU taldeak aurkeztutako mozioa.
- 6.- San Juan-22 H.E.E.ko h.10.2 lursaileko 526 m2.ko lursaila behin betiko izaeraz desafektatzeko proposamena.
- 7.- Ordiziako Udalaren administrazio elektronikoaren zenbait alderdi arautzen dituen Ordenantza hasierako izaeraz onartzeko proposamena.
- 8.- TXINDOKI 15 H.E.E.ko garapen eta kudeaketarako Orkli enpresarekin Hirigintza Hitzarmena sinatzeko hasierako izaeraz onartzeko proposamena.
- 9.- Goierriko Ekimena, S.A.rekin 2011ko ekainaren 7an sinatutako Hitzarmena aldatzeko onarpen proposamena.
- 10.- Kreditu Aldaketen espedientea onartzea.
- 11.- COORDINADORA VASCA DE ORGANIZACIONES SOLIDARIAS CON LA RASD (SAHARA), erakundeari dirulaguntza ONARTZEA,

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

- .- Etxez-Etxeko Foru Aldundiarekin sinatu beharreko hitzarmenari buruzko egin behar zen bilerari buruzko informazio eskaera.
- .- Alkatetzak zenbait dokumentazio banatzeko asmoa.

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:20 etan

AMAIERA: 20:15etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2014ko uztailaren 23ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2014ko uztailaren 23ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- Alkateen aukeraketa zuzenerako proposamenaren aurrean BILDU taldeak aurkeztutako mozioa.

10.puntuaren atzetik aztertuko da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- ESKOZIAR HERRIARI AGURRIK BEROENA izenburua duen BILDU taldeak aurkeztutako proposamena.

Proposamena

Urteetako ibilbidearen ondoren, Eskoziar herriak bere etorkizuna libreki erabakiko du datorren irailaren 18an. Eskozian, bertako herritarrek hartuko dute hitza; eta herritarrak izango dira, Eskoziak zer nolako antolaketa politikoa izan behar duen erabakiko dutenak.

Irailaren 18an Eskozian egingo den erreferendum-a, herrien askapen prozesuen ibilbidean beste urrats garrantzitsu bat izango da. Eskoziarrak, dagoeneko beren herriaren etorkizunaren jabe dira, eta laister batean, Katalunia, Euskal Herria eta munduko hainbat naziok ere eskubide hori egikarituko dugu. Herrien askatasunaren aldeko atzeraezineko prozesu bat abian dagoelako mundu mailan.

Egun historiko honen aurrean, honako adierazpen hau egin nahi dugu instituzio honetatik:

1.- Eskoziar herria zoriondu nahi dugu, libreki etorkizuna erabakitzeko burutzen ari diren ariketagatik. Herri orok duen eskubidea praktikara eraman da.

2.- Munduko herri askeen historiarako geratuko den data izanik, eta Eskoziar herritarrak beraien etorkizuna libreki erabakitzen ariko diren egunean bertan, gure babesa adierazteko, Eskoziako bandera jarriko dugu instituzioaren fatxada nagusian, ikusgarri eta lehentasuneko izango den tokian batean.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.:

Adierazi du urteetako ibilbidearen ondoren, Eskoziar herriak bere etorkizuna libreki erabaki duela irailaren 18an egindako erreferendum-aren bitartez, eta horren inguruko mozioa dela.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:



Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Dubreuil jn.

Adierazi du bere intentziora abstenitzea izan dela nahiz eta agian erraturik eskua altxa duen, eta horren konstantzia gera dadin nahi du.

Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Kutxabank-fundazio batean ez bihurtzeko BILDU taldeak aurkeztutako mozioa.

Proposamena

Ordiziako Udal Batzari

Duela 150 urte inguru pasatu dira Donostiako (Bilbo, Gasteiz...) Udalak eta Gipuzkoako (Araba, Bizkaia...) Aldundiak Caja de Ahorros de San Sebastian eta Caja de Ahorros de Gipuzkoa sortu zituztenetik. Zalantzarik ez dago, eta historiari errebaso txiki bat ematea nahikoa litzateke, kutxa horiek sortu zirenean, hasieratik, funtzio publiko eta sozial bat betetzeko sortu zirela.

Funtsean, honokoa zen aipaturiko helburu eta funtzio publiko eta soziala: bertako herritarren aurrezkiak, bertan inbertituak izateko apustua bermatzea. Horretarako, herritarrei eta familiei finantza-zerbitzua eskaini, bertako enpresari txikiei finantziarioa bermatu, udalen finantziario eta inbertsioetan lagundu, bertako ekonomiarentzat estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bultzatu eta hori gutxi balitz, lortutako etekinak gizarte-ekintzan inbertitzea izan dute kutxek urteetan helburu.

Une honetan ordea, erraz esan dezakegu kutxen bategitetik sortu den Kutxabanken ildoak ez dela bertako herritarrei eta ekonomiari begirako funtzio publiko eta sozialabetetzen ari. Aitzitik, negozio hutsa eta bidegabea da besterik gabe bultzatzen ari dena. Hori gutxi balitz, kutxak banku-fundazio bihurtzeko hautuarekin, kontrol publiko eta soziala murriztuko da eta jada iragarri den pribatizazioaren bideari ateari ireki dakizkioke, aipaturiko funtzio publiko eta sozial hori behin betirako desagerraraziz.

Historikoki bete duten funtzioetatik, zein egungo egoera ekonomiko zailean bete beharko luketen funtzioetatik, garrantzitsua da oso bestelako norabidean doan bide berri bati ekitea eta hortxe kokatzen ditugu hain zuzen Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen proposamenaren helburuak. Horrexe diote hitzez hitz:



1. "Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutzaren izaera publiko eta soziala bermatzea du lehen helburu.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, izaera publiko eta sozial horren bidez, entitate fundatzaileek hasieratik finkatutako helburuak berreskuratu nahi ditu XXI. mendeko Euskal Herrira egokitutako Kutxabank eta kutxen izaera eta helburuak bermatuz.
3. Bizi dugun krisi ekonomiko latz honetatik ateratzeko eta Gipuzkoa eta Euskal Herri Berria eraikitzeko finantza-tresna publiko eta soziala izatea.
4. Bertako ekonomia errealararen mesedetan arituko den finantza-entitatea izatea eta herri zein eskualdeetako errealitate sozialarekin eta ekonomikoekin lotuta egotea, izan daitezkeen behar ekonomiko eta sozialen aldeko inbertsioak eginez:
 - ▲ Bertako autonomoei, merkatariei, enpresari txikiei eta kooperatibistei finantziarioa bermatzea.
 - ▲ Udalei aurreikusi ditzaketen inbertsioei begira, finantza-baliabideak eskaintzea.
 - ▲ Kutxen sorreran egon zen langileekiko eta familiekiko begirunea berreskuratzea eta etxe-kaleratzeak edota IRPH bezalako jarduerekin amaitzea eta familiek dituzten finantza beharretarako eskaintza eraginkor eta justua eskaintzea.
 - ▲ Oro har, herriz herri hedatua egongo den finantza entitatea izatea. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko etengabeko konpromisoa izango duena, bai langile kopuru eta bitartekoen ikuspuntutik zein zerbitzuaren kalitate edota euskararen erabilpenarengatik ere.
 - ▲ Sorreratik hain garrantzitsua izan den gizarte-ekintzarekiko konpromisoak berrestea eta betetzea eta gizarte-ekintzak XXI. mendean bete behar duen papera denon artean berraztertzea eta garatzea."

Kutxa banku-fundazio batean ez bihurtzeko (Bizkaia eta Araban, banku-fundazio izateari uzteko) eta aipatu helburu horien norabidean arituko diren kutzak eta Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat bermatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak akzioen eskualdatze-prozesu bat proposatu du, hain zuzen ere, izaera publiko eta soziala ahalbideratzen duen aukera erreal, legal eta eraginkor gisa.

Hori guztia kontutan hartuta ORDIZIAKO Udalak honoko erabakiak hartzen ditu:

- 1.- ORDIZIAKO Udalak herritarren, familien eta bertako ekonomiaren mesedetan arituko den Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat aldarrikatu nahi du.
- 2.- ORDIZIAKO Udalak Kutzaren (GIPIZKOAN) eta Kutxabanken izaera publiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko borondate eta prestutasun irmoa du.
- 3.- Norabide horretan, ORDIZIAKO Udalak Kutxako (GIPIZKOAN) batzarrari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezala,



Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertako instituzioen izaera publiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Asenjo in.:

Adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxaren izaera publiko eta soziala bermatzea duela lehen helburu, eta mozio honetan eskatzen dena hain zuzen ere dela Kutxaren izaera publikoa eta soziala mantentzea.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (BILDU 7,

Aurkakoak: 0

Abstentzioak:5 (EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- San Juan-22 H.E.E.ko h.10.2 lursailleko 526 m2.ko lursaila behin betiko izaeraz desafektatzeko proposamena.

Proposamena

Udalbatzak, 2014ko ekainaren 26an onartutako akordioaren berri ematen du, jabari publikoko ondarea den, 22-San Juan Hirigintza Jarduetarako Eremuko h.10.2. lurzatiko 526m2 desafektatu eta ondare kalifikazioa jasotzeko espedientea behin behinekoz onartzen duena.



Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2014ko ekainaren 4koa, 126 zenbakian, ediktu bidez argitaratutako espedientearen esposizio publikoaren berri ematen du,, epe barruan inongo erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez delarik.

Honengatik guztiagatik Gaien Batzordeak honokoa proposatzen du:

AKORDIO PROPOSAMENA.

San Juan HIEko h.10.2ko 526m2 desafektatzeko eta ondare kalifikatzeko espedientea behin betikoz onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Absolutoa.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Ordiziako Udalaren Administrazio elektronikoen zenbait alderdi arautzen dituen Ordenantza hasierako izaeraz onartzeko proposamena.

Proposamena

Informazioaren teknologia berriak gero eta hedatuago daude bizitzako eremu guztietan. Hori horrela, beharrezkoa da administrazio elektronikoa hiritarrei hurbiltzea, kudeaketak errazago egin ditzaten, udal-bulegoetara joan beharrik gabe.

XXI. mendeko erronka teknologikoen mailan egon nahi duen administrazio batek komunikazio elektronikoen erabilera sustatu behar du; aurrerapen eta berrikuntza teknologikoak aplikatu behar ditu izapide eta prozeduretan, hiritarrei eskaintzen dien zerbitzuetan ahalik eraginkortasunik handiena eskaintzeko.

Udalaren ardura da konfiantza eta segurtasuna sortzea izapide elektronikoen erabileran, aurrerapen teknologikoak haien zerbitzura jarritz. Azken batean, administrazioaren ardura da aurrez aurreko kudeaketaren eta kudeaketa elektronikoen arteko bidea murriztea, eta gure ardura da hiritarren eta administrazio orokorraren artean dagoen hesia murriztea.

Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezartzen du 2009ko abenduaren 31tik aurrera toki-administrazioek hiritarrei aukera eman behar dietela legeak berak aitortutako eskubide hauek bitarteko elektronikoz erabiltzeko:

1. Administrazioarekin harremanetan jartzeko bidea aukeratzea.
2. Administrazioak dituen datuak eta dokumentuak ez ematea.
3. Berdintasuna zerbitzuak bitarteko elektronikoz eskuratzeko.
4. Interesatuak diren prozedurak zer izapidetan dauden ezagutzea.
5. Dokumentuen kopia elektronikoak lortzea.
6. Espedientea osatzen duten dokumentuak formatu elektronikoan gordetzea.
7. Identifikazio elektronikorako behar diren bitartekoak lortzea, eta pertsona fisikoek nortasun-agiriaren sinadura elektronikoa eraili ahal izatea, edozein administrazioarekin edozer izapide elektronikoa egiteko.
8. Sinadura elektronikoko beste sistema batzuk erabiltzea.
9. Segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea.
10. Bitarteko elektronikoen bidez emandako zerbitzu publikoen kalitatea.
11. Administrazioekin harremanetan jartzeko aplikazioak edo sistemak aukeratzea, betiere estandar irekiak erabiltzen diren kasuetan.

Ordenantza honen helburua da Ordiziako Udaleko administrazio elektronikoen zenbait alderdi arautzea.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalarari dagokio ordenantzak onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- b) Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.



Erreklamaziorik ego iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako erabakia behin betiko bihurtuko da, erabaki berririk hartzeko beharrik izan gabe.

Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- Ordiziako Udalaren Administrazio Elektronikoaren zenbait alderdi arautzen dituen Ordenantzari hasierako onarpena ematea.
- 2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.
- 3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartutako dira.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Absolutoa.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Adierazi du gai honi buruzko azalpenak eman zirela azken Udal Osoko Gaien Informazio Batzordean, eta dagoeneko Ordiziako Udalean martxan dagoela administrazio elektronikoa.

Santamaria jn.

Adierazi du gogoratu nahi duela, Udal hau 2007. Urtean hasi zela munigexekin modernizazio lanetan, eta azpimarratu nahi izan du Munigex programa kudeatzen duen Marijoren lana, eta baita Udaleko langileen jarrera. Jarraitu du esanez hurrengo faseetan administrazio elektronikoaren erabilera bultzatu beharko dela, eta herritarrek erabil dezaten kanpainak egin beharko direla, dena ordenantza hau behin-betiko izaeraz onartu ondoren.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0



Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- TXINDOKI 15 H.E.E.ko garapen eta kudeaketarako Orkli enpresarekin Hirigintza Hitzarmena sinatzeko hasierako izaeraz onartzeko proposamena

Proposamena

ORKLIk aurkeztutako hitzarmen proposamenaren berri ematen duena 15-TXINDOKI Hirigintza Jarduetarako Eremua (HIE) garatu eta kudeatzeko.

Ekainaren 30ko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, hirigintza hitzarmena onartu eta sinatuko da eremua garatzeko bi aldeek bete beharko dituzten betebeharrak jasotzen dituen.

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2c artikulua arabera Udalbatzari dagokio hirigintza hitzarmena sinatzea eta GAOn 20 eguneko esposizio publikoan jartzea.

2014ko irailaren 17ko datarekin egindako Gaien Batzordearen oniritziarekin, honokoa proposatzen da:

1. Ordiziako Udalaren eta ORKLI S. COOP.ren arteko hitzarmena onartzea HIE 15-TXINDOKIn indarrean dagoen plangintzan eta etorkizuneko garapenerako aldaketak egitea, atxikitzen dira.
2. GAOn 20 eguneko esposizio publikoa jartzea, epe horretan alegazioarik aurkezten ez bada behin betiko onartutzat emango da.
3. Alkatea ahaldundu dagokion dokumentuak sinatu ditzan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.:



Azaldu du zein ibilbide izan duen gai honek hitzarmen hau Plenora ekarri arte, ibilbide hau ia urte betez luzatu dela, eta gogoratu du joan den irailaren 17an bilera bat egin zela hitzarmenaren xehetasunak azaldu eta egon daitezkeen zalantzak argitzeko, eta bertan Udal arkitektoa den Juanma Saez izan zela.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Goierriko Ekimena, S.A.rekin 2011ko ekainaren 7an sinatutako Hitzarmena aldatzeko onarpen proposamena.

Proposamena

2011ko ekainaren 7ko datarekin akordioa sinatu zen "Goierriko Ekimena S.A." Eskualdeko Garapen Agentziaren eta Ordiziako Udalaren artean, HIE 30 Oiangualde b.20.1. lur-zatiaren p2 zatiko azalera-eskubidearen lagapenerako edo erosketarako.

Hitzarmen honen 14.2 artikulua honokoa dio:

2) Prezioa 230.000 eurokoa izango da, besterentzeko unera bitartean metatutako KPI edo indize baliokidearen aldatzearekin eguneratua gehi BEZ, eta aipatu besterentzera bitartean kanon gisa ordaindutako zenbatekoa kenduta. Kopuru honi Ordiziako udalak GOIEKI, San duen partaidetza-mailari deskontatu behar zaio, hau da, %23,11, soilik erosketaren finantziakzioa elkartearen osatzen duten udalerrien ez-ohiko ekarpen bidez egiten bada.

Honoko akordioa, Goiekiko Zuzendaritzak aho batez onartu zuen eta 2014ko uztailaren 6ko datarekin idatziz bidali zen:

- 1.- Ordiziako Udalarik jakinaraztea Goiekik lursaila erosteko asmoa duela.
- 2.- Ordiziako Udalarik lursailaren balorazio berri hau kontuan hartzeko eskatzea.
- 3.- Goieki eta Ordiziako Udalaren artean dagoen Hitzarmena aldatzeko prozedura abian jartzea.



2014ko irailaren 15eko Udal teknikariaren txostenaren arabera:

AKORDIO PROPOSAMENA

Goierriko Ekimena S.A. Zuzendaritza Batzordearen proposamena onartzea, lursaila erosteko 180.700 euroren truke eta horretarako Hitzarmenean aldaketak egitea.

Alkatea ahaldundu gaia bideratzeko beharrezkoak diren dokumentu publiko edo pribatuak sina ditzan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.:

Adierazi du banatu den dokumentazioan ikusten den bezala, akordio proposamenean aldaketa batzuk egin direla, garbi utzi nahi duela gaur ez dela hitzarmen berria onartzen, baizik eta Goierriko Ekimenak egindako proposamenari oniritzia eman, eta hitzarmenaren aldaketa egiteko irizpide orokor batzuk ezarri, eta hau dela azken finean akordio proposamenean egindako aldaketen justifikazioa. Jarraitu du esanez gaur egun Ordiziako Udalak hitzarmen bat duela Goierriko Ekimena S.A.rekin, horren arabera Goiekik Udalak Oiangualdean daukan lursaila erosteko eskubidea dauka baina baldintza batzuei lotuta, eta hitzarmen horretan jasota dituen betebeharrak gehienak Goiekik ezin izan dituela bete duela, eta horregatik hitzarmena gaur egungo egoerara egokitzeko aldaketak behar dituela; ondoren azaldu du zergatik Goiekik ezin izan duen baldintzarik bete, (hitzartuta zeuden diru laguntza batzuekin Sustapen Ministeritzarekin izandako gatazka, eta abar); hori dena kontuan hartuta teknikoaren artean ere ikusi da egokiena hitzarmen hori letra txukunez jartzea dela, egia da Goiekik ezin izan duela hitzarmenean zeuden hainbat betebeharrak bete, eta orain egiten den hitzarmenean baldintza egokitu batzuk jarri beharko liratekeela, eta lanean jarraitzearen onartzen da Goiekiko proposamena, baina honako premisa hauek kontuan hartuta:

- Balorazio berriaren ondorioz ateratako prezioa, hau da 180.700,00 euro, kontuan izango da. Atal honetan adierazi du agian Udalaren aldetik beste balorazio bat eskatuko dela.
- Obrak exekutatzeko hasteko epeari dagokionez, eta abar, 2020-07-01eko data ezartzen da tope bezala.
- Erosteko aukera gauzatzeko denean, ondorio gabe geratzen da hitzarmenean "azalera eskubideari" buruz egiten diren aipamen guztiak.

Bukatu du esanez, azken finean irizpide orokorrak direla, eta horiekin hitzarmena prestatu eta Goiekiko Administrazio Kontseiluari pasatuko zaiola.

Santamaria jn.



Adierazi du lursailaren tasazio berria eskatu behar dela entzun duenean, zalantza bat sortu zaiola eta galdetzen du ea gaur erabakitzen den hitzarmen berria.

Idazkariak.

Balorazioaren gaiari buruz, adierazi du espedientearen jasota dagoela 2014ko irailaren 15eko Udako Arkitetkoaren txostena non bere oniritzia ematen dion Goiekik aurkeztutako balorazio berriari.

Alkate jn.

Esan du irizpide orokorrak onartzen direla, eta ez hitzarmen berria; irizpide orokorrekin hitzarmen berria egokituko dela, eta ateratzen den dokumentu osatua igorriko zaiola Goiekiko Administrazio Kontseiluari, eta helburua dela Goiekik urriko Administrazio kontseiluan onartu eta Ordiziako Udako Osoko Bilkurak, urriko bileran berrestea.

Santamaria jn.

Adierazi du irizpide orokorren artean jasotzen dela obrak exekutatzeko hasteko epeari dagokionez, eta abar, 2020-07-01eko data ezartzen dela tope bezala, eta hau ez zela aipatu Goiekiko Administrazio Kontseiluan.

Alkate jn:

Erantzun dio irizpide hau kontrastatzeko Goiekiko Ikerri deitu zaiola, eta berak tekniko bezala bere oniritzia eman diola, baina garbi dagoela erabakia Administrazio Kontseiluak onartu behar duela.

Bozketapean jartzen den proposamena hau da:

2011ko ekainaren 7ko datarekin akordioa sinatu zen "Goierriko Ekimena S.A." Eskualdeko Garapen Agentziaren eta Ordiziako Udalaren artean, HIE 30 Oiangualde b.20.1. lur-zatiaren p2 zatiko azalera-erabilgarritasunaren lagapenerako edo erosketarako.

Hitzarmen honen 14.2 artikulua honokoa da:

2) *Prezioa 230.000 eurokoa izango da, besterentzeko unera bitartean metatutako KPI edo indize baliokidearen aldakuntzarekin eguneratua gehi BEZ, eta aipatu besterentzera bitartean kanon gisa ordaindutako zenbatekoa kenduta. Kopuru honi Ordiziako udalak GOIEKI, SAn duen partaidetza-mailari deskontatu behar zaio, hau da, %23,11, soilik erosketaren finantziazioa elkarrekin osatzen duten udalerrien ez-ohiko ekarpen bidez egiten bada.*

"Goierriko Ekimena S.A" ezin izan duela hitzarmen horren betebeharrak gehienak betetzerik izan (azalera erabilgarritasunaren erateia, proiektuak aurkezteko epeak, obrak exekutatzeko epeak, eta abar), zeren eta auzia dauka Sustapen Ministeritzarekin diru laguntza bati buruz.

Honoko akordioa, Goiekiko Administrazio Batzordeak aho batez onartu zuen eta 2014ko uztailaren 6ko datarekin idatziz bidali zen:

- 1.- *Ordiziako Udalari jakinaraztea Goiekik lursaila erosteko asmoa duela.*
- 2.- *Ordiziako Udalari lursailaren balorazio berri hau kontuan hartzeko eskatzea.*
- 3.- *Goieki eta Ordiziako Udalaren artean dagoen Hitzarmena aldatzeko prozedura abian jartzea.*

2014ko irailaren 15eko Udal teknikariaren txostenaren bitartez oniritza ematen zaio balorazio berriari.

AKORDIO PROPOSAMENA

Goierriko Ekimena S.A. Zuzendaritza Batzordearen proposamena, lursaila erosteko eta hitzarmena aldatzeko, onartzea; hitzarmenaren aldaketa egiteko honako irizpide orokor hauek kontuan izango dira:

- Balorazio berriaren ondorioz ateratako prezioa, hau da 180.700 euro, kontuan izango da.
- Obrak exekutatzen hasteko epeari dagokionez, eta abar, 2020-07-01eko data ezartzen da tope bezala.
- Erosteko aukera gauzatzeko denean, ondorio gabe geratzen dira hitzarmenean "azalera eskubideari" buruz egiten diren aipamen guztiak.

Alkatea ahaldundu gaia bideratzeko beharrezkoak diren dokumentu publiko edo pribatuak sina ditzan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- Kreditu Aldaketen expedientea onartzea.

Proposamena

2014ko Aurrekontuaren exekuzioa aztertu da eta kredituaren beharra duten partidak ezagutu dira. Baita ere, Aurrekontua onartu zenean ez zeuden behar berriak sortu dira eta aurre egin behar zaizkie.

Beste aldetik, beste partida batzutan ikusi da behar baino kreditu handiagoa dagoela eta erabil daitekela, sortu diren behar berriei aurre egiteko moduan.

Espedientea prestatu da eta 2014-9-17an egindako Plenoko Gaiaren Batzordean horren berri eman da.

AKORDIO PROPOSAMENA

Kreditu transferentzi 11. espedientea onartzea, segidako zehaztasunarekin:

2014ko AURREKONTUA KREDITU-TRANSFERENTZIEN 11.ESPEDIENTEA KREDITU IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
ERAGIKETA ARRUNTAK		
160.314.00.04	Elkarkidetza lanez kanpokoentzako	1.025,00
212.434.11.01	Parke eta lorategien mantenimendua	13.000,00
226.452.20.06	Euskal Herriko Itzulia	2.500,00
226.452.20.99	Hainbat gastu	150,00
		16.675,00
KAPITAL ERAGIKETAK		
933.010.00.01	Maileguen amortizazioak	3.000,00
623.121.00.04	Dokumentuen birringailua	250,00
623.433.00.02.2013	Barrena eta D'elikatuz-en argiteri aldaketa	1.550,00
623.446.00.02	Markesina berria	5.000,00
601.511.00.09	Domingo Unanue Plazako zuloaren konponketa	3.500,00
		13.300,00
		29.975,00

FINANTZIAZIOA KREDITU MURRIZKETA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
ERAGIKETA ARRUNTAK		
332.010.00.01	Maileguen interesak	12.000,00
227.432.10.07.2013	Irisgarritasun proiektua	9.900,00
		21.900,00



KAPITAL ERAGIKETAK		
601.444.00.01	Bidegorri Ampuero kalea	3.075,00
601.511.00.02	Obra txikiak	5.000,00
		8.075,00
		29.975,00

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (BILDU 7)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 5 (EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak presazko bidetik aurkeztutako 2 puntuen berri eman du:

.- Alkateen aukeraketa zuzenerako proposamenaren aurrean udaleko hiru taldeek aurkeztutako mozioa.

Lehenik eta behin, aurkeztutako proposamenaren presazko izaera jarri da bozketapean.

Presazko izaera onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Bozketa

Lehendakariak bozketapean jarri du aurkeztutako gaiaren presazko izaera.

Botazioa egin ondoren emaitza hauek izan dira:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Ondorioz, Lehendakariak puntu honen presazko izaera onartutzat eman du.

MOZIOA

Herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izanik, Udalen jarduera ireki, zabal eta demokratikoan sakontzea, eguneroko ariketa izan beharko litzateke. Hauteskundeen aurretik, egunean bertan eta ondoren ere, Udalek herritarren borondatearen ispilu izan behar dute. Aldi berean, gainerako interes partidista, ekonomiko eta finantzieroren gainetik, herritarrenganako zerbitzua eta konpromisoa izango dira etengabe, Udal politika ezaugarrituko duten adierazleak.

Baina gure Udalek aurrekinik gabeko erasoak jaso izan dituzte azken urteetan. Europatik proposatu eta Madriletik inposatu dituzten murrizketen gauzapearen bidez, ahalmen politikoak eta ekonomikoak erabat mugatu zaizkie Udalei, lehendik larria zen egoera, oraindik ere larriago bilakatuz. Madriletik inposatu nahi izan zaizkigun neurri horiek guztiek, udalen autonomia suntsitzeaz gain, Udalen eskuetan dauden baliabideak esku pribatuetara bideratzeko ate guztiak irekitzen saiatu dira. Eredu publikoa eta herritarra ahulduz eta era berean eremu pribatuan mugitzen diren enpresak indartuz. Azken urteetako udalen jarduera eredia, berez ahula izanik ere, errotik okerrera aldatu nahi izan da Madrigo Gobernutik.

Behin eta berriz, Hego Euskal Herriko instituzio guztiek, udalen autonomia indartzearen beharra eta udalak herritarrengana gerturatzeko neurriak aldarrikatu arren, Madriletik entzungor egin zaigu eta inposaketarekin erantzun zaigu.

Azken urte hauetan neurri hauek bultzatu eta udalen eskumen politikoak murriztu dituen PP alderdia, alkatearen aukeraketa zuzenerako proposamen batekin datorkigu. Oraindik osotasunean ezagutzen ez baldin bada ere, alkatea zuzenean zerrendarik bozkatuenerako zerrendaburu izendatzeko proposamena jarri da mahaiaren gainean. Udal hauteskundeetarako hilabete gutxi falta diren honetan, nagusiki PP-ren alderdi interesei erantzuten dien proposamen baten aurrean gaude. PP-k ohikoa duen bezala eta beste behin ere, inoren iritzitari kasurik egin gabe (eta bereziki Euskal Herriko udal eta toki erakundeetatik egiten diren aldarrikapenei kasurik egin gabe) ari da urratsak ematen. Bere interes politiko alderdikoi eta zentralistak inposatu nahi ditu gure udaletan, herritarren gehiengoaren iritzia alde batera utzita. Alkatetzeta eta Udal Gobernuak, herritarren gehiengoaren borondatea ordezkatu behar dute. Alkatearen erreferentzia garrantzitsua da, baina ez eredu presidentzialista baten arduradun gisa, herritarren gehiengoaren ordezkari gisa baizik.

Hauteskunde Legearen aldaketa sakon bat behar dela uste dugu. Baina ez alderdi bataren edo bestearen interesak defendatzeko, baizik eta Euskal Herritarrok gure udal eta instituzio egitura nolakoa izan behar



duen erabakitzeko aukera izateko. Gure udaletan demokrasiari ateak irekitzeko, jarrera presidentzialista eta autoritarioak alde batetara uzteko eta herritarren hitzak udaletan zuzenean indarra izan dezan. PP-k aurkeztu duen proposamenaren kontrako norabidean egin behar dira aldaketak.

Hau guztia kontuan izanik, ORDIZIAKO Udalak, honako puntu hauek onartzen ditu:

1.- Udal honek, Madrilgo Gobernutik PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkaturiko zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen ginetik, PP-ren alderdi interesei erantzuten dielako. Norabide horretan, udal honek, interes alderdikoiek sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein aldebakarreko aldaketa errefusatzeko du.

2.- Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitateen borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herriarren beharren arabera antolatzeke eskubidea aldarrikatu nahi du.

3.- Udal honek, ebazpen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateke erabakia hartzen du.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn:

Adierazi du Udaleko 3 taldeek adostu dutela mozio bateratua aurkeztea, eta horren arabera aho batez onartu dute 2 eta 3 puntuetako mozioak erretiratu, eta horren ordez mozio bateratua aurkeztea. Mozio bateratua da Bilduk aurkeztutako mozioaren puntuak, 3. puntua izan ezik.

Kentzen den 3. Puntuak honela esaten zuen: Udal honek, bere jardueran herritarren parte-hartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, Udalaren osaketan ez ezik Udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.

Irakurri du 3 alderdien artean adostutako mozioaren puntuak, eta adierazi du Udal Gobernuaren buru bezala eta baita Bildu taldearen izenean salatu nahi duela PPK inposatu nahi duen hauteskunde lege aldaketa, autoritarioa eta inposatzailea dena; ez du bat egiten eta ez du bat egingo ere honelako irizpide inposatzaileekin, are gehiago, gutxiengoaren eskubideen errespetoaz sinesten duelako. Bestalde adierazi du nahiago izan duela mozioa adostu, 3. puntua kenduta bada ere, eta bere harridura agertu du EAJ eta PSE-PSOE taldeek mozioaren 3. puntua kentzeko egin zuten eskaerarekin zeren eta ulertzen du ados egon beharko lirakeela puntu horretan, eta gai hau adosteko egin zen bileran esan zuenaren arabera jakin nahi



luke eta publikoki galdetzen du zer dela eta EAJ eta PSE-PSOE taldeak eskatu duten 3. puntu hori kentzea.

Santamaria jn:

Adierazi du ados dagoela alkate jaunak mozioa defendatzeko egindako azalpenarekin, eta baita ere ados dagoela kendutako 3. puntuaren edukiarekin, eta bertan esaten den guztiarekin, eta gogoratu du aurreko legealdian gauzak zentzu horretan garbi zeudela, eta partaidetzarako Udal Osoko Bilkuran onartutako marko bat eratu zela, eta horrekin betetzen zela puntu horretan jasotako guztia; bukatu du esanez Legealdi honetan gai honetan koherentzi falta ikusi duela, mozio honen gaiak ez duela zerikusia 3. puntuan adierazitakoarekin, eta azken finean garrantzitsuena adostasun batera iristea zenez, horregatik eskatu dutela 3. puntua kentzea.

Dubruel jn.:

Adierazi du, talde guztiek bi mozioen helburu eta funtsarekin bat eginda, mozio bateratu baten alde egin dutela eta horren helburua izan dela PPK proposatzen duen hauteskunde erreformaren aurka egitea. Eztabaidarako gai izan den eta kendu den 3. puntuari dagokionez, esan du behin eta berriz errepikatzen den gaia dela, eta mozio honetan demokrazia zuzenaz hitz egitea gaiak nahastea dela mozioak hauteskunde erreformari buruz hitz egiten duelako, eta ez duelako kendutako 3. puntuko arloarekin zerikusirik; eta gainera alderdi guztiekin adostasuna lortzeko aukera zaildu dezakeela, bukatu du esanez gustatuko litzaiokeela legealdi honetan partaidetzarako akordio markoa garatu izan balitz arloren batean.

Asenjo jn:

Adierazi du lehendabizi balorean jarri nahi duela lortutako akordioa, Udal Gobernuak nahiz eta gehiengo osoa eduki mozioa aurrera ateratzeko, eta oso gurea den puntu bat kendu behar izatea, dagozkion jentzioak egin ditu talde guztien artean adosteko eta hori azpimarratu behar da. Bestalde garbi utzi du bere taldeak Estatu eta Lege propioak eta abar edukitzea aldarrikatzen duela zeren eta Espainiatik datozenak beti ere gure interesen aurka doaz. Bukatzeko eta 3. puntuari dagokionez EAJ eta PSE-PSOeko ordezkariak galdetu die ea 3. puntua jarri nahi ez izatearen aurrean ez ote dagoen bi alderdien arteko pakto ezkuturen bat hauteskundeak irabazi ezean zuekin paktatu eta zerrenda bozkatuenari kentzeko.

Santamaria jn:

Pakto ezkutuari buruz adierazi du berak ez duela horren inguruan inongo informaziorik, eta berriro berretsi du ez daudela kendutako 3. puntuko edukiaren aurka.

Alkate jn.:

Legea dagoen legea dela esan du, eta PPren erreformaren funtsa dela herritarren erabakitze eskubidea ahalik eta gehien murriztea, baina ikusten dugu eta horrekin batera uste dugu lege horiei aurre egiteko aukera, eta horiei aurre egiteko modua eta oinarriak direla 3. puntuan aipatutako (eta kendutako)



partaidetza, demokrazia zuzena eta abar. Eta gustatuko litzaiokeela hemerrotekara jo eta ikustea benetan partaidetza markoa garatu den edo ez partaidetza prozesuetan, eta gai honekin lotuta zer egin den azkeneko 10 urteetan, eta arraroa iruditzen zaiola puntu hau sartu nahi ez izatea azken 3 urteetan behin eta berriro hitz egin denean gai hauetaz. Lortutako akordioa gobernu honek akordioak lortzeko egiten duen ahaleginaren adibidea da, eta zentzu honetan gogorarazi du bi aldiz egin zaiela bi taldeei udal gobernu organoetan parte hartzeko gonbidapena, baztertuak izan ziren arrazoiak ulertu zituztela adieraziz, eta bukatu du esanez helburua beti izan dela partaidetza efektibo bat sortzea eta ez soilik presentziakoa.

Dubrueil jn:

Errepikatu du mozio honetan ez zuela zentzurik puntu hau sartzeak, hauteskunde erreformaz hitz egitean mozioaren zentzua lausotzen delako. Partaidetza akordio markoaz luze hitz egin daiteke eta gai honen inguruan azkeneko 3 urteez eta aurreko 4 urteez hitz egiten bada balorazioen bat egin daiteke, baina talde bakoitzak egingo lukeen balorazioa oso desberdina izango litzateke, eta badakizue partaidetzari dagokionez jasotako herentziaren zati bat hondatu duzuela, izan ere akordio marko honen barruan garatzeko akordio bat zegoen baina ez da ezer egin. Asenjo jaunak esandakoari dagokionez erantzuten dio esanez Lege guztiek ez diotela kalterik egiten Euskal Herriari, lege txarrak daudela baina badaudela lege onak, ez dela orokortu behar, eta ez duela uste Espainiar Parlamentuak legeak egiten dituenik Euskal Herriari min egiteko. Azkenik, Asenjo jaunari galdetzen dio ea hori pentsatzen duen, bere alderdia Espainiar Parlamentura joaten baita.

Asenjo:

Esan du Bilduk eta Madrilen Amaiurrek, euskal, espainiar , europar erakundeetan... parte hartzen dutela defendatu beharreko euskal interesak daudelako eta bukatu du esanez berezko euskal estatua izatea dugula xede, non gure legeak eta abar izango ditugun.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



.- COORDINADORA VASCA DE ORGANIZACIONES SOLIDARIAS CON LA RASD (SAHARA)
erakundeari dirulaguntza ONARTZEA.

Lehenik eta behin, aurkeztutako proposamenaren presazko izaera jarri da bozketapean.

Presazko izaera onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Bozketa

Lehendakariak bozketapean jarri du aurkeztutako gaiaren presazko izaera.

Botazioa egin ondoren emaitza hauek izan dira:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Ondorioz, Lehendakariak puntu honen presazko izaera onartutzat eman du.

Proposamena

Ordiziako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Programan, Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak, arautzen dituen araudia jarraituz, eta 2014 urteko ekitaldiari dagokionez,

Honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

COORDINADORA VASCA DE ORGANIZACIONES SOLIDARIAS CON LA RASD (SAHARA), erakundeari, 2000.-€ko dirulaguntza ONARTZEA, "Sahararen aldeko 2013-2014 Euskal karabana: Piztu itzaropena" aurrera eramateko.

Karabana honek, aurreko aldietan bezela, Tindufeko Kanpalekuetan dagoen saharar errefuxiatuei elikadura-laguntza, sendagai eta premiazkoak diren beste produktuak bidaltzea du helburu.

Nahiz eta urtero antolatzen den karabana izan, Saharan bizi den egoera kronifikatutako larrialdi egoera dela baloratzen da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:



Maiza and.:

Adierazi du koordinadora honek urte asko daramatzala honelako kanpainak egiten, eta nahiz eta zorrotza izanda larrialdietako laguntzetako parametroetatik kanpo egon eskaera hau, baloratu dela Saharak aspaldidanik bizi duen egoera larria, eta salbuespen gisa eta Saharak egoera kronifikatu bat bizi duela kontuan hartuta, justifikatzen dela 2.000,00 euroko diru laguntza emateko proposamena.

Santamaria jn.:

Adierazi du akordio proiektuan ez duela jartzen kopurua.

Maiza and.:

Erantzun dio akats bat egon dela, eta baieztatu dio berriro diru laguntza 2.000,00 eurokoa izango dela.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

.- Galde-erreguak

Santamaria jn.:

Adierazi du aurreko Udal Osoko Bilkuran Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmenaren puntua aztertu zenean, alkateak esan zuela eskatuta zegoela bilera bat egiteko irailan Ordiziako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren egoera aztertzeko, eta galdetu du ea egin den.

Alkate jn.:



Erantzun dio ez dela egin, oraindik Gipuzkoako Foru Aldundiak eguna jarri ez duelako, eta berriro berretsi dela eskaera, eta ez dela izango bakarrik etxez-etxe laguntzaren gaia tratatzeko, baizik eta gizarte ongizate gaiari buruz dauden gai guztiak tratatzeko.

.....

Alkate jn.:

Adierazi du uztailean esan zuen bezala, urritik aurrera eta Udal Osoko Bilkurarako Gaien Informazio Batzordearen aurretik, alkateak eskatuta zenbait dokumentazio banatuko dela Udal Osoko Bilkurako gai zerrendari dagokion puntuari lotuta, besteak beste, alkatetzaren errepresentazio-ordezkaritza egutegia, errepresentazio gastuen informazioa, hileko Dekretuen laburpena eta interes orokorreko beste zenbait gauza; bidaltzen diren hauetatik batzuk kontu emateko bakarrik izango dira eta beste batzuen kasuan, adibidez Dekretuen kasuan, aukera emango da galdetzeko eta egon daitezkeen zalantzak argitzeko.

Santamaria jn.:

Adierazi du aurreko agintaldian Dekretuak banatzen zirela.

Alkate jn.:

Erantzun dio baietz, baina aurreko agintaldian pasatzeari utzi zitzaiola ikusten denez arazo tekniko batzuk zeudelako tartean.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

